

CONCHITA

RODRIGO HERNÁNDEZ

2024ko maiatzaren 17a - uztailaren 30^a

CarrerasMugica

Armarri batek bilakaera izaten du: Normalean, denboraren poderioz, elementu berriak sartu, eta beste batzuk galtzen ditu. Gainera, haren parte baten edo batzuen esanahia ere alda daiteke. Batzuetan, bi aldaketa horiek izaten dira aldi berean, eta hainbat aldiz gerta daitezke denboran barrena, nahiz eta ez geratu bilakaera horien ibilbidea argi azaltzen duen erregistrorik. Era berean, ia ezinezkoa da jakitea zein den ikusten dugunaren esanahia, eta, batez ere, jatorriz zuen esanahia. Beraz, armarri bati begiratzen diogunean, aurrean dugun irudiak hainbat trantsizio ditu metatuta, eta horiek iluntzen joan dira eta, nolabait, beren burua ukatzen. Aldi berean, harrigarriena da ikusgai dauden irudiak oinarritzekoak direla, ia arketipikoak: zuhaitz bat, zubi bat, bi otso, mendi bat.

Orain dela gutxi, esaldi hau topatu nuen eleberri batean: "Oroimena kaleko zakur bat bezalakoa da, ez baitu araurik betetzen eta nahi duena egiten baitu, trebatu dezaten onartu gabe". Nik esango nuke otso baten modukoa dela gehienbat: giza munduaren inguruan dabilen izaki basati bat, gizakiari beldur, aieru eta galdera amaigabeak iragazten dizkiona.

Nik maite-maite izan dut beti amona Conchita. Urte batzuetan, elkarrekin bizi izan ginen etxe berean, bera, ama eta hirurok. Eskolatik iristen nintzenean, nire zain egoten zen, bazkaria prestatzen zuen, eta mahaira esertzen ginen biok. Garai hartan eta aurrerago ere bai, xehetasun batzuk entzun nituen haren bizitzaz. Adierazi nahi edo ahal izan zituen apurrak; esaterako, Durangon jaioa zela, hemendik, erakusketa hau dagoen lekutik, kilometro gutxira. Hain kontu gutxi gogoratzen al zuen benetan? Zerk hondatzen zuen kontakizun hori? Zergatik zegoen hain osatugabe? Zerk bultzatzen gaitu iraganeko kontu batzuk gogoratzerara, eta zerk ematen dio forma zehatz hori berreraikita agertzen denean? Xehetasun horiek bilduz joan nintzen inolako asmo zehatzik gabe, eta, batez ere, jakin gabe noizbait elementu gehiago beharko nuela dena lotzeko eta koherentzia pixka batez ehundu ahal izateko; nolabait haren bizitzaren irudi osoago bat izateko, gaur egun ere ez dudana. Conchitaren istoriotik gorde den apurra eszena eta puska osatugabeak dira. Oroimenera etorri, eta eten-sentsazioa uzten didate, amets bat gogoratu nahi duzunean bezala; beldur berberaz, oroitzapena desagertu, eta oroimenak betiko ezkutatuko ote duen.

Rodrigo Hernández (Mexiko Hiria, 1983). Karlsruhe-ko Akademie der bildenden Künste-n eta Maastricht-eko Jan van Eyck Academie-n ikasi zuen. Bekaduna izan da Basileako Laurenz-Haus Stiftung-en (2015), Stuttgart-eko Akademie Schloss Solitude-n, Parisko Cité International des Arts-en (2016) eta Istanbul Modern-en (2019). Berriki egin dituen banakako erakusketen artean, honako hauek daude: Wattis Institute, San Frantzisko, AEB; Kestner Gesellschaft, Hannover, Alemania; Jumex Museoa, Mexiko Hiria, Mexiko; Swiss Institute/Offsite, New York, AEB; Arte Modernoko Museoa, Medellin, Kolonbia; Kunsthalle Kohta, Helsinki, Finlandia; CIAJG, Guimaraes, Portugal; Galerie Fons Welters, Amsterdam, Herbehereak; SCAD Museum of Art, Savannah, Georgia, AEB; Siqueiros Arte Publikoko Aretoa, Mexiko Hiria; Pivo, Sao Paulo; Kunsthalle Winterthur, Suitza; Midway Contemporary, Minneapolis; SALTS, Basilea; Kim?, Riga; Heidelberger Kunstverein, Heidelberg; Kurimanzutto, Mexiko Hiria; Chopo Unibertsitate Museoa, Mexiko Hiria; Bonnefantenmuseum, Maastricht; Parallel Oaxaca, Oaxaca, Mexiko. Artelanak leku hauetan izan ditu ikusgai: Göteborgs Konsthall; Istanbul Modern; PinchukArtCenter, Kiev; GaMec, Bergamo; ZKM Museum für Neue Kunst, Karlsruhe; Kunstverein Nuremberg; Bonnefantenmuseum, Maastricht; Gladstone Gallery, Brusela; Arte Modernoko Museoa, Mexiko Hiria; Moskuko Arte Modernoko Museoa, Mosku; Museum Haus Konstruktiv, Zurich; Kunsthalle Basel, Basilea.







Conchita (Itsasoa), 2024.
Brontzea
30 x 27 x 27 cm.





Conchita (Itsasoa), 2024. Brontzea. 30 x 27 x 27 cm.



Conchita (Itsasoa), 2024.
Brontzea
30 x 27 x 27 cm.





Conchita (otsoa), 2024. Brontzea. 33 x 19 x 23 cm.



Conchita (otsoa), 2024. Brontzea. 33 x 19 x 23 cm.



Conchita (lorea), 2024. Brontzea. 39 x 20 x 29 cm.



Conchita (Iorea), 2024
Brontzea
39 x 20 x 29 cm.



Conchita (euria), 2024. Brontzea. 38 x 18 x 30 cm.



Conchita (tximeleta), 2024
Brontzea
33 x 22 x 24 cm.







Conchita (etorkizuna), 2024
Brontzea
29 x 27 x 22 cm.





Conchita (Eneko), 2024. Brontzea. 37 x 54 x 3,5 cm.



Conchita (txoria), 2024. Brontzea. 49 x 60 x 2 cm.











CarrerasMugica

www.carrerasmugica.com

info@carrerasmugica.com

Calle Heros 2 / E-48009 BILBAO
T. +34 944234725